


PLATAKO ITSASARGIA
A MAILA
ULIA PASEALEKUA 403

Egilea eta data: ezezagunak; 1855
Deskribapena

153 m-ko altueran dago, Pasaia porturako sarbidea osatzen duten Ulija mendiko haitzetako baten gainean. Eraikuntza honek, atzealdeko almenak ez ezik, muturretan, gaztelu itxura ematen dioten bi dorre ditu. Ezarrita dagoen moduan, haren atzeko fatxada mendia bera da, teilatua gailurrekin sestran duela, itsaslabarrak eraikinarekiko duen eragina murrizteko. Hiru solairu ditu. Dorrea gailurrean bertan zimendatuta dago eta hirugarren solairutik komunikatzen da eraikinarekin, pasabide estali eta almenadun baten eta mendian asentatutako eskailera batzuen bitartez.

Babes erregimena

- Erregimen orokorra
Plan Berezi honen A babes mailan integratzearekin loturikoa.
- Berariazko erregimena
Donejakue Bidea kultur ondasun sailkatu izanaren ondoriozkoa (urtarrilaren 10eko 2/2012 Dekretuaren bidez izendatu zuten, EHAA, 19. zk., 2012-01-27), bitarteko babes maila duela.
- Eragindako ingurunea: xedapen horretan ezarritakoa.